



Prensa oharra

EROSKI eta WWFk lankidetzak akordio bat dute 2004tik

EROSKI-K BAT EGINGO DU WWF-REN "PLANETAREN ORDUA" KANPAINAREKIN

- **Martxoaren 28an, EROSKI bat egingo du itzalaldi kanpaina sinbolikoarekin**
- **2016an, Europako lehen supermerkatu energetikoki buruaskia irekiko du EROSKI**

Elorrio, 2015eko martxoaren 26a.- [EROSKI](#) bosgarren urtez egingo du bat [WWF](#) Nazio Batuen Erakundearen babesarekin antolatzen duen "[Planetaren ordua](#)" kanpainarekin. Hala, itzalaldi sinbolikoa egingo du bere egoitza sozialean eta www.eroski.es eta www.consumer.es webguneetan; martxa jarraituko dute webek, baina argi apalagoarekin. Mundu osoko milioika pertsonak itzaliko dute argia ordubetez (20:30etik 21:30era bitartean, martxoaren 28an, mundua kontzientziazteko ingurumenaren garrantziaz eta klima aldaketaren kontrako borrokaz.

"Aurten ere, hainbat gauza antolatuko ditu EROSKI kontsumitzaileak eta langileak kanpaina honetan murgiltzeko. Baina Planetaren Orduaren helburuak oso argi daude EROSKIren egunerokoan. Gure gizarte ekintzaren estrategia lerroetan dago kontsumitzailea ingurumenaren gaitan kontzientziaztea eta hezteak", esan du Alejandro Martinez Berriochoak, EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak.

Hauek dira kooperatibaren Ingurumen Planean datozen ekintzarik esanguratsuenak: energia kontsumoa gutxitzea eta energia berriztagarriak erabiltzea, birziklatzea, isuriak gutxitzea, ekodiseinuaren bidez ontziak optimizatzea eta Zurekin eredu komertzialera egokitutako EROSKIren denden ingurumen iraunkortasuna handitzea. Bestalde, ingurumenaren mesederako diren hainbat berme eskaintzen ditu EROSKI bere zentro guztietan: adibidez, FSC zigilua daukaten baso iraunkorretatik ateratako zurarekin egindako produktuak eta arrantzaleku iraunkorretatik datorren arraina, MSC ekoetiketa daramana.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es



Prentsa oharra

EROSKI eta WWF elkarri laguntzen kontsumo iraunkorrago baten alde

EROSKI eta WWFk lankidetzaz hitzarmena sinatua dute ingurumen politika zenbait aurrera ateratzeko; besteak beste, arrantzalekuen ustiapen iraunkorra, energia efizientziaren hobekuntza eta kontsumo arduratsua. Hiru urteko lankidetzaz akordioa da.

Akordio horren bitartez, WWF murgildu egingo da EROSKI gaur egun bultzatzen duen proiektuan, hau da, laugarren belaunaldiko ekodenda eraikitzen; hain zuzen ere, Europako lehen supermerkatua izan dadin bere burua hornitzen duena funtzionatzeko beharrezko duen energiaren. EROSKIko Gizarte Erantzukizunaren zuzendariak hauxe esan du: "Saltokiak 2016an irekiko ditu ateak Gasteizen, eta Europako lehena izango da horrelako ezaugarriak dituen. Horren helburua da erakustea bideragarria dela teknikoki eta ekonomikoki energia berriztagarrien bitartez hornitzea 2.000 metro koadroko supermerkatu bat". CENER Energia Berriztagarrien Espainiako Zentroarekin ari da EROSKI proiektu horretan. I+G proiektu berri honen bitartez, EROSKIren aurreko ekodendak baino pauso bat aurrerago eman dugu, zeinak supermerkatu baten energia kontsumoa %65 gutxitzea lortu zuen.

Hala berean, EROSKI eta WWF lanean ari dira kooperatibaren arrantza produktuen iraunkortasun politika berritzeko. Hitzarmenarekin, era berean, WWFk edukiz hornituko du EROSKIren Elikadura Eskolako *Elikadura eta ohitura osasungarri buruzko heziketa programa*, iraunkortasunaren gaineko modulu espezifiko bat eratuta, Espainia guztiko ikastetxeekin elkarlanean aritzeko. WWF eta EROSKI beste modulu bat eratzen ari dira, "Nire lurraldeko elikagaiak" izenekoa; haren bitartez, ikasleek beren lurraldean nekazaritza elikagaiak ekoizten dituzten lantegiak ikusi ahalko dituzte, bertatik bertara, eta hala, ikasiko dute tokiko produktuek zer garrantzi duten eta zeinen inportantea den lehen sektoreko ekoizpen ehunaren aniztasunari eustea.

EROSKI

EROSKI 2.100 saltoki baino gehiago ditu guztira: EROSKI hipermerkatuak, EROSKI/center supermerkatuak, Caprabo eta EROSKI/city, on line dendak, EROSKI/Bidaiak bulegoak, gasolindegia, Forum Sport kirol dendak, IF lurrindendak eta 22 plataforma logistikoa.

Hasieratik ari da EROSKI gizarte ekintza askotan, bereziki bizi ohitura osasungarrien promozioan, kontsumitzailearen hezkuntzan, ingurumenaren defentsan eta elkartasunean.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es



Prentsa oharra

WWF

WWF natura babesteko mundu erakunde independenterik handienetako eta eraginkorrenetako bat da. Haren helburua da Lurreko ingurumen hondamendia geldiaraztea eta gizakia etorkizunean naturarekin harmonian biziko den etorkizun bat eraikitzea, aniztasun biologikoari eutsita, baliabide berriztagarri naturalen erabilera iraunkorra ziurtatuta eta kutsadura eta neurrigabeko kontsumoa gutxitzen lagunduta.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es